


Noaia !!



Janaina Da Silva, euskara
ikasten ari den brasildarra



Ibilbideak eta bide gorriak
aisialdian gozatzekoak

Tapak eta aurkibideak, prest

Agur esan diegu 2005 urteari.
Noanua! gutxiak bidu eta 2005eko
tapa eta aurkibidearekin
koadernatzeko garaia da.
Bazkide zaretenok, azala eta aurkibidea
doan jaso ditzakezue
NOANUA! Kultur Elkarteke egotzari.



Tapak eta aurkibidea doan eskuratzen dituzte bazkideek.
Bazkide ez direnek, aldiz, 3 euro ordaindu behar dituzte
tapa edo azalarengatik, eta 1,20 euro, aurkibidearengatik.
Koadernatzea, Lizardin edota 1. auroken egin dezakezue.
Hori bai, koadernatzea berdin-berdin ordaindu behar
dute bazkideek eta bazkide ez direnek.

Txirrikitutik !!

Joxe Ramon Zubimendik idatzitako "Zubietako mila urteko herria" liburua aipatzen da Zubietako elizaren nondik norakoa. 1660. urte inguruan zubietarrek eliza egiteko baimena lortu zuten Usurbilgo Atxega jauna kontrario gogorra eta indartsua izango zutela jakin arren. Gau batean eta isil-gordeka egin omen zuten, Atxegaren beldurrez. Eliza egurrezkoa egin zuten, teilatua izan ezik, gaur egun dagoen leku berean eta bertan, hama-bi gizon besterik ezin omen zitekeen sar. Denborarekin eliza hondatzen zihoala ikusirik zubietarrek harrizko eliza eraiki nahi izan zuten eta lehengoa baino handiagoa. Baina Usurbilgo erretorea eta Atxega jaunak ez zutela baimenik emango garbi adierazi zuten; lehengo eliza bota eta lurrarekin berdintzeko, Zubietan ez zela eliza beharrik, bi zubi bazirela Usurbilera joateko (Alirikoa eta Zorrotzakoa). Auzia Iruñeako gotzaiaren esku geratu zen eta zubietarrek irabazi zuten. 1677. urtean baimen gorena lortu eta eliza berria eraiki zuten. Duela urte gutxi berriaz, 2001ean, eliza eraberritu zen. Orduan egindako aldaketarik aipagarriena zimitorioaren leku aldaketa da.

Zaloe Arnaiz Ibarguren



1996-12-06, Zubietako eliza, Zubietako

Iturria: "Zubietako mila urteko herria" liburua, NOAUA! Kultur Elkarte

Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkarte Bordaerri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
 Tlf.: 943 36 03 21 / elkarte@noaua.com / www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkarte@noaua.com

Aldizkariako koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkarte@noaua.com

Publizitatea: Intza Salsamendi, publizitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbietako, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustín Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Zaloe Arnaiz, Jakoba Errekondo, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Bordaerri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai. Denborapasak: LUMA, O.E.

Bazkietza: Aitziber Aranberri.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Zaloe Arnaiz, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo.

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

IKA MIKA ATALEAN PARTE HARTU NAHI BADUZU, GOGOAN IZAN IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITUELA. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA! IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. IDATZIA ARGITARATZE-DATA BAINA ASTEBETE LEHENAGO EKARRI BEHAR DA.

NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean eta, orohar, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aurkibidea

JANAINA DA SILVAREKIN SOLASALDIA **5. OR.**

"APELLIDUAK ABIZENDU" KANPAINA **6. OR.**

Buruntzaldeko Udalek bat egin dute kanpaina honekin. Funtsean, abizenaren grafia euskarara aldatzeko pausuen berri eman nahi da.



BIDE GORRIAK ETA IBILBIDEAK **8. OR.**

UDAL ZERGA EGUTEGIA **10. OR.**

BERRIOLAK ERE BADU EUSKARA PLANA **12. OR.**

Usurbilen, hiru dira Euskara Plana martxan duten lantegiak: Victorio Luzuriaga, S. Izaguirre eta Fagor Automation-Berriola.



ESKUBALOI TALDEAREN IBILBIDEA **14. OR.**



Usurbilgo Udalak



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria



Euskal presoak

Euskal Herrira!

Zutabea !!



AINHOA AZPIROZ

Gida baimena bai, baina...

Tarteka auto eskolako kotxe baten atzetik ibili beharko genuke karneta daukagunok. Normalean gutxietsi egiten ditugu gida baimena ateratzen ari direnak eta batere pazientziarik gabe jartzen gara horien atzetik. Berehala pasa nahi izaten ditugu. Gauza bera "L" a daramatenekin; beti enbarazu egiten digute eta gaizki pentsatzen edo gaizki esaka hasten gara batere kupidarik gabe: "juxtu aurrean tokatu behar bare hori!", "nik erakutsiko diot honi zer den ondo gidatzea!"... eta ez noa aipatzera emakumea baldin bada zer entzuten den!

Egia da auto eskolakoak ikasten ari direla eta agian oraindik dena ez dutela ondo egingo. Baina gauza asko, eta inportanteak, gainerakook baino arreta gehiagorekin zaintzen dituzte. Adibidez, zebra bideetan gelditu egiten dira, oinezkoei pasatzen uzteko. Gainerakook gelditzen al gara? Ondo etortzen baldin bazaigu bai, alegia frenatzeko denbora ematen badigu bai. Eskuzabal baldin bagaude edo presaka ez baldin bagabiltza ere bai. Baina bestela...

Buruz behera dauden seinale hiruki zuri-gorri horien aurrean, "eman bidea" edo "ceda el paso" jartzen duten horien aurrean... ahaztuta daukagu nork nori eman

behar dion bidea, eta denek guri eman behar digutela pentsatzen dugu. Auto eskolakoak eta "L" a dutenak bakarrik zapaltzen dute freno hasieratik. Herri barruan ere horiek izaten dira abiadura mugak zorrotz errespetatzen dituzten bakarrak.

Eta intermitentearena... hori bai gogorra. Zenbat gogoratzen ote dira behin azterketa egin ondoren palanka horrek existitzen jarraitzen duela? Alegia, ezkerrera joan nahi dugunean palankari behera eman behar diogula eta eskuinera joan nahi dugunean gora? Seinalea bera bezala erabiltzen dugu: batzuetan bai, bestetan ez, bai-ez, ez-bai. Eta erabiltzen ez badugu, nola jakingo dute gainerakook norantz goazen? Autoa gidatzen doanak ez dauka intermitentea beste seinalerik aurreko autoak edo atzekoak edo aldamenekoak norako asmoa duen jakiteko. Egin liteke proba telepatiaz, baina ez al da konplikatuagoa?

Gauza horiek denek txorakeriak dirudite, gida baimena atera berrien kontuak. Baina ez dira huskeriak, errepidean ez baikara gu eta gure kotxea bakarrik ibiltzen. Horregatik diot tarteka auto eskolako kotxe baten atzetik joatea komeni zaigula, txikikeria garrantzitsu horiek gogoratzeko.

Ainhoa Azpiroz - Aitor Landaluze - Jakoba Errekondo - Luis Aranalde - Nerea Zinkunegi - Idoia Torregerai - Jose Piñas - Aritz Gorriti

IKA MIKA ATALEAN PARTE HARTU NAHI BADUZU, GOGOAN IZAN IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITUELA.

ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA,

NOAUA!k IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU.

NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Hurrengo alea: otsailak 10. Idatzia ekartzeko azken eguna: otsailak 4.

LATAILLADE  **ITURGINTZA**


GASA
BEROKUNTZA
MANTENIMENDUA ETA
KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK

Aritzitxo 8, behea - 943 363 348 - 609 888 021

Patri Jatetxea



K/nagusia 14. ☎ 943 362 725



Kale nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13

Okindegia - Gozategia

LABE-GOXO

Janaina Da Silva Oliveira

“Euskara zaila egiten zait, baina ari naiz pixkanaka”

Brasilen jaio zen baina Usurbilen bizi da eta euskaltegira joaten da euskara ikastera

Brasilgo Ceará estatuko Fortaleza hiriburukoa da Janaina. Usurbildar batekin maitemindu eta hona etorri zen bizitzera. Asko gustatu zaio herria eta herritarrak berarekin oso atseginak direla dio. Orain, euskara ikasten ari da Etumeta euskaltegian. Ez zaio erraza egiten ari, baina pixkanaka aurrera doala aitortu digu.

NOAUA! Zergatik hasi zinen euskara ikasten?

Janaira Da Silva. Baliogarri izango zaidalako eta, hemen egonik, bertako hizkuntza ikastea garrantzitsua ikusten dudalako. Nire alabagatik, Leiregatik ere bai. Arrazoi asko daude.

N. Euskarari dagokionez, zer egin zaizu zailen ikasteko?

J. S. Hizkuntza bera zaila egiten zait. Esaldiak sortzea edota idaztea. Sarritan zerbait ikasi baina hurrengo egunean ikasitakoa ez dut oroitzen. Memoria txarra daukat! Baina ari naiz, pixkanaka.

JANAIRA DA SILVA

“Oso ongi bizi gara hemen, beste leku askotan baino hobeto”

N. Euskaltegian hasi zinenetik hona nabaritu al duzu aurrerapenik?

J. S. Nire ustez oraindik ez dut gehiegi menderatzen. Baina ikasten ari naiz, oraindik ez dut hitz egiten, baina hor nabil.

N. Eta herrira ondo egokitu al zara?



LEIRE IZENEKO ALABA DU ETA BERAREKIN EUSKARAZ EGIN NAHI DU.

J. S. Oso ondo egokitu naiz, oso gustura nago hemen. Lasaia da, ez dago biolentziarik. Usurbilen jendea oso ezberdina da, oso ondo tratatzen naute. Jendeak oso harrera ona egin dit. Oso ongi bizi gara hemen, beste leku askotan baino askoz hobeto. Gauza asko ezagutu ditut, sagardotegiak, dantzak, pintxoak...

Janaria ere gustatu zait, asko jaten da, edo hobeto esanda, ondo jaten da. Hotza egiten du hala ere! Horretara ohitu nahian nabil. Hemengo hondartzak ez zaizkit gustatu, adibidez. Han hondartza gehiago ditugu, ezberdinak, handiagoak dira eta ez dago jende askorik, lasai egon zaitezke bertan. Hondartzak, behintzat, hangoak hobeak dira.

N. Eta hango festak hobeak al dira?

J. S. Festak! Hemengo festekin liluraturuta nago! Oso onak dira hemengoak. Han festak ezberdinak dira, ez dira hemen bezala. Han biolentzia asko dago, lapurretak... Han ez nintzen asko ateratzen festetara, gauzak ez

daude festa egiteko moduan. Ni bizi nintzen lekuan gaizki zegoen kontua. Toki hobeak ere badaude, lasai egiteko modukoak. Herrialde batzuetan paseatzeko aukera dago, hondartzara joan daiteke... Baina ni bizi nintzen lekuan oso gaizki zegoen dena.

NEREA KORTA _____

“Illobetaz asko akordatzen naiz”

Gustura dago Usurbilen baina etxekoetaz asko akordatzen da: “Nire illobetaz, bereziki. Oporretan han egon nintzen, eta duela egun gutxi etorri dira hona nire ahizpa eta bere alaba. Ahizpa, ordea, ez dago oso gustura; hangoa du faltan. Alaba bai, printzesa baten moduan dago hemen, oso ondo tratatzen dute. Ni ere oso ondo nago hemen, babestuta sentitzen naiz”.

Abizenaren grafia euskarara aldatzeko kanpaina berri bat abiarazi dute Buruntzaldeko udalek

Buruntzaldeko udalek, tartean Usurbilgoak, abizenak euskaraz jartzeko kanpaina berri bat abiarazi dute. Eman beharreko pausoak azalduz eskuorriak argitaratu dituzte. Guztira, 1.765 eskuorri txiki eta 195 eskuorri handi banatuko dira. Lehengo asteazkenean egin zen kanpaina honen prentsaurrekoa Usurbilgo udalbatza aretoan. Bide batez, etxejabeen komunitadeetako agiriak euskaraz idatzeko liburuxka ere aurkeztu zuten.


“Apelliduak abizendu” kanpainaren helburua herritarrari abizena euskaraz jartzeko zein urrats eman behar dituen erakustea da. Azken batean, Echeveste “v” eta “ch”z idatzia duenak Etxebeste euskarazko grafiara aldatzeko zer-nolako urratsak eman behar dituen jakinarazi nahi da.

Eskuorria, bereziki, 18-19 urte dituzten gazteei zuzendua dago. Honen arrazoia hau da: adin tarte horretan berritzen du gazteak nortasun agiria, eta behin agiriak egin behar dituenean, errazagoa da orduan abizenaren grafia euskaratzea.

Hala ere, adin tarte horretakoa ez den edozeinek eskuorria eskuratu eta bere abizenaren grafia euskaraz jarri nahi badu, Udal Euskara Zerbitzura joan eta bertan azalpenak emango zaizkio.

Kanpaina honekin batera, “Etxejabeen komunitadeetako agiriak” izeneko ekimena aurkeztu zen. Etxejabeek administrazioarako behar dituzten hainbat idatziren ereduak jasota daude. Datorren alean sakonduko dugu gai hau.

IMANOL UBEDA



IRUDI HONEKIN OSATU DA “APELLIDUAK ABIZENDU”

KANPAINAREN ESKUORRIA.

Eman beharreko pausuak

Aurkeztu beharreko agiriak

1. Errolda agiria

Udaletxeko bulegoetan, erregistroan, egingo dizute errolda agiria.

2. Jaiotzagiri literala

Zure jaioterriko Bake Epaitegian egingo dizute. Donostian erregistratuta bazaude, Donostiako Erregistro Zibilera joan behar duzu. Kalkutako Teresa plaza, z/g Donostia
Tf. 943 000 730

3. NANaren fotokopia

4. Familia liburua

Ezkonduta egon edo seme-alabarik izanez gero.

Egin beharrekoa

Bake Epaitegira jo

Aipatutako agiriak bildu eta herriko Bake Epaitegira joan. Bertan egingo dizute aldaketa.

Zalantzaren bat izan edo argibide gehiago nahi izanez gero, deitu Bake Epaitegira:

Kale Nagusia 4 behea
20170 Usurbil
Tf. 943 372 336.

Argibide gehiagorako

Udaleko Euskara Zerbitzuan

Jose Martin Sagardia plaza z/g
20170 Usurbil
Tf. 943 371 951

Kanpaina deigarria

“Txo! Guk abizenak euskaraz!”

“Zuk ere zure abizenaren grafia euskarara alda dezakezu! Oso erraza da!”. Hau da kanpaina berri hau aurkezteko erabili den leloa eta irudia.

Buruntzaldeko herri guztietan honelako eskuorriak banatuko dira.



Presoen senideei dirulaguntzak emateagatik, udal gobernu berriak ETA babesten duela dio PP alderdiak

Allkatetzak, dekretu bidez, 12.000 euroko dirulaguntza ahalbidetu zuen abenduaren 28an

EA eta EAJ-PNV alderdien arteko udal akordioak PPren kritikak piztu ditu. Urtarrilaren 27an igorritako presta-agirian, udal gobernuaren lehen erabakia presoen senideei dirulaguntzak ematea izan dela zioen Manuel Michelenak, PPko zinegotziak. Senideek 12.000 euroko dirulaguntza jasoko dutela salatu nahi du Manuel Michelenak. Era berean, EA eta EAJ-PNV alderdiek osatzen duten udal gobernuak ETA eta bere ingurua babesten jarraitzen duela dio PPko zinegotziak, "aurretik Batasunaren udal gobernuak egiten zuen bezala".

Urtarrilaren 20an, 2006ko udal aurrekontu proposamena aurkeztu zen Ogasun Batzordean. Otsailaren erdialdean iritsiko da udalbatza plenora aurrekontuen gaia. Baina dagoeneko lehen kritikak eragin ditu udal aurrekontu berriaren proposamenak. Proposamen horren arabera, presoen senideek 12.000 euroko dirulaguntza jasoko dutela salatu du Manuel Michelenak, PPko zinegotziak.

Dena den, presoen senideei dirulaguntzeko konpromisoa aspaldi hartu zuen Usurbilgo Udalak. 1983an aho

batez preso politikoen senideei bidaietarako dirulaguntzak emateko erabakia adostu zuen. Erabaki hau ez da baliogabetua izan eta, honen bidez, Usurbilgo Udalak urtero ordaindu ditu Euskal Herrikan kanpoko kartzeletan urrutiratuta egon diren presoen senideen bisitabidaia.

Jurisprudentzia, aldekoa

2005ko abenduaren 27an, udal idazkariak sinaturiko txosten batean gai honekiko jurisprudentzia aitatzen zuen: "Euskal Herriko Epaimahai Gorenak, preso urrutiratuen senideentzako dirulaguntzak emateko udalek duten eskubidea berretsi du 2003ko apirilaren 30ean (Bergara), 2004ko irailaren 30ean (Arrigorriaga) eta 2004ko azaroaren 19an (Beasain) eman dako epaietan, besteak beste".

Udal aurrekontuetan jasoa

Usurbilgo udal idazkariak, aipaturiko epaietan ematen diren erizpideak kontuan harturik, ez du oztoporik ikusten Usurbilgo presoen senideei dirulaguntzak emateko, egin dituzten bidaiengatik.

Hori bai, presoen senideek bidaiagastuen ordainagiriak aurkeztu behar dituzte udaletxean.



EAJ-PNV ETA EAKO HAINBAT KIDE, ARTXIBOKO IRUDI BATEAN.

2005eko udal aurrekontuan ere, Usurbilgo presoen senideen bidaiak dirulaguntzeko 12.000 euro aurreikusi ziren. Baina dirulaguntza hau ez zen abenduaren 28a arte banatua izan.

Iñaki Illarramendi,

EAJ-PNVko zinegotzi berria

Iñaki Illarramendik ibeteko du Pedro Ibarra zinegotzi ohiairen tokia. Azken udalbatza plenoan onartu zen aldaketak. 2003ko udal hauteskundeetan, alderdi jeltzalearen zerrendan 10. postuan zegoen Iñaki Illarramendi.



txirriStra
KONTSEJU ZAHARRA 13
943 300 400
pintxoak
ogitartekoak
ptatek konbinatuak
TABERNA

teilatuak eta fatxadak
JOSE AIZPURUA UNANUE
Obaba kalea 29 · ASTEASU
© 943 69 68 52 · 620 800 186

MAHUKA
ETXEBESTE KALEA, 3 · 943 351 106
Llehen aurkituko duzu
gizon eta emakumezkoen
MODAKO ARROPA

Zendoia
Kale Nagusia 35 · 943 37 40 71

LATXA
Kutxer denda
Janari prekozinatua
Kongelatuak
Bertako produktuak
Bilakaia 2. Oatila · Tel. 606 301 803

Bide gorriak eta ibilbideak, aisialdirako bi proposamen

Asteburutan bizikletan edo oinez osteratxo bat egiteko aukerak badira inguru hauetan. Orain, herritarrak horretara bultzatu asmoz bi proiektu atera nahi dira aurrera: bide-gorrien eta ibilbideen proiektuak.

Azpiegiturak eta auto partikularrak ugaritzen ari diren honetan, aisialdirako bi proiekturen berri izan dugu azken asteotan: Gipuzkoa mailako bide gorri sarearen proiektuaren eta Buruntzaldea bailarako herriak lotzen dituzten ibilbideen berri.

Landa lurraren aniztasuna ezagutarazteko ekimena

Asmoak asmo, lehentasun batzuk ipini dituzte proiektu hauek gauzatzerakoan. Usurbilgo Udaleko ingurumeneko teknikari Begoña Rodriguezek azaldu duenez, "lehentasuna dute teknikoki nahikoa erraz egin daitezkeen bideek eta garrantzia handia eman nahi diote bizikletaren erabilgarritasunari, ez hainbeste aisialdiari". Esaterako, ikastera edota lanera joateko erabilgarria izateari lehentasuna ematen diote Foru Aldunditik. Rodriguezek oharta-



GURE INGURUAN, ZUBIETAKOA DA IBILBIDE ESTIMATUENA.

razi digunez, "hortik dator, adibidez, industrialdeetara joateko Hernani, Urnieta eta inguruetan bideak egin nahi izatea". Ondorioz, hasiera batean atzera bota du Aldundiak Usurbilen egitekoak ziren bide zatiak. Hain zuzen, lanera edo ikastera joateko inork gutxi erabiliko bailituzke Usurbilgo herri-bideak. Edozein kasutan, Aldundiak bidea igaroko den herrietako udalen esku uzten du

proiektu hau bultzatzeko erabakia. "Udala bidea egiteko prest balego, Aldundia, ekonomikoki zenbateraino lagundu dezakeen aztertzeke prest legoke" zehaztu du udal teknikariak. "Landa lurraren aniztasuna barneratu, baloratu eta bizitzen ikasteko ongi daude horrelako ekimenak" baieztatu du ingurumeneko teknikariak.

ARITZ GORRITI

Gipuzkoako sarea osatu nahi da

Gipuzkoa mailan bide gorri sarea egiteko proiektua aurkeztu zuen 2001ean Foru Aldundiak, Donostian abian jarritako ekimenak zuen arrakasta ikusita.

Hainbat herri lotuta geratuko lirake eta marraztu duten maparen arabera, Usurbildik igaroko litzateke bideetako bat. Lasartetik Zubietara igaro, han-

dik Santuenera eta Irabitik barrena Txokoaldera. Oria ibaia zeharkatu eta Aginagatik barrena, Mapileraino luzatuko litzateke. Handik, zubi bat dago ibaiez bestaldera eta hura zeharkatuta, trenbide paretik Orioraino joatea aurreikusten da. Inbertsio handia egiteko asmoa izan dute hasieratik. Aldameneko zutabeen dituzue datu batzuk.

Aurreikusi diren bideak

Gipuzkoako bide-gorri sarea:
Ibilbidearen luzera: 310,6854 km.
Gastua: 30.187.246,59 euro.

Donostia-Deba-Mutriku bide zatia:
Ibilbidearen luzera: 59,4584 km.
Gastua: 4.044.902,90 euro.

Lasarte-Aginaga bidea:
Ibilbidearen luzera: 7,7344 km.
Gastua: 325.451,16 euro.

Aginaga-Orio bidea:
Ibilbidearen luzera: 7,8378 km.
Gastua: 651.278, 52 euro.

Iñaki Yurreamendi, Kirol Patronatuko kudeatzailea: “Buruntzaldeko ibilbide politena Usurbilen dago”

Duela hamabost urte bailarako kirol teknikariak bildu ziren. Buruntzaldeko herriei lotura fisiko bat eman behar ziotela ikusi zuten. Horri aurkitu zioten irtenbidea: Andoain, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbil ibilbideen bidez lotzea. Gehienak eginak eta seinalatzatuak daude.

Udal Kirol Patronatuko kide Iñaki Yurreamendik adierazi bezala, “helburua, oinezkoek ibiltzeko dituzten aukerak bultzatzea da”. Horretan ezberdintzen da bide gorrien aldean. Kasu honetan, oinezkoek dute lehentasuna; bide gorrietan, bizikletan ibiltzen direnek. Proiektua gauzatzera, herri bideez baliatu dira.

IÑAKI YURREAMENDI

“Usurbil eta Andoain lotzeko mendi bide bat zabaltzeko, lau orduko”

Proiektuaren lehen fasea, ia burutu dute eta laster ekingo diote bigarrenari. Herri bakoitzak herri gunerako ibilbideak proposatzea aurreikusten dute,

mendi ingurukoak batik bat. Usurbil eta Andoain lotu berri dute. “Bi herriak lotzeko mendi bide bat zabaltzeko; lau orduko ibilbidea osatuz” zehaztu du Kirol Patronatuko kideak.

Udaberrian, bost herriak lotuko dituen ibilaldi neurtua

Ekimena sustraitzeko ibilbideak ezaugarazi nahi dituzte. Horren haritik, herrian zenbait panel informatibo ipini dituzte eta udaberri aldean, Buruntzaldeko bost herriak lotuko dituen ibilaldi neurtua antolatzen dabil. Yurreamendiren hitzetan, “Buruntzaldeko ibilbide politena Usurbilen dago”. Azpiko koadrotxoan dituzte ibilbidearen zati nagusiak.



AGINAGAKO IBILBIDEAN TOPATUKO DUZUEN MAPATXOETAKO BAT.

Zubieta-Mapil (Aginaga)

Lertxundi-Artzabaleta (Zubieta): lurjabe batekin duten arazoa konponduta, bidea zabalik izango litzateke.

Amiri-Santuenea: espaloia egiteko aurreproiektu bat eginga dago.

Santuenea-Txokoalde: bidea eginga dago.

Txokoalde-Lertxundi baserria (Aginaga): hor zati batean ez dago biderik; egin beharra dago. Baserritarrek harremanetan daude.

Lertxundi-Mapil: bidea eginga dago, baserritarrek hitzarmena sinatu ostean.

Mapil-Orio: bidea egiteke.

Santuenea-San Esteban: bidea eginga. Andatzarako bide zati bat seinalatzatzeaz.

Bi txirrindulari gazteren ikuspegia

Oinezko eta txirrindularien erabilpenerako ibilbideen aldekoak dira Jon eta Unai Korta usurbildar txirrindulariak. Biek inguruetako herri bideak ederki ezagutzen dituzte. “Ibilbideen proposamena, praktikoagoa da eguneroko bizitzan. Errazagoa da egiteko, diru gutxiago kostatzen da eta jende gehiagok erabiliko luke” adierazi du

Jonek. Bi anaien ustez, ibilbideek onura gehiago ekarriko dizkie txirrindulariei. “Ibilbideetan autoren bat badoa, auto gidariei mantso ibili behar dutela gogorarazten diete seinalak” adierazi du Unai. Bideetan seinalak jartzeko ekimena, orientabidea ez galtzeko aukera ona da haien ustean. Horren haritik, txirrindulariei begira, bide baz-

terrak gehiago zaindu beharko liratekeela diote bi anaiek. “Entrenatzeko muga gehiago ditugu” diote.

Edozein kasutan, bide-gorria ez dute baztertzen; hori bai, entrenamendu saioetan dabilen txirrindularientzat baino aisialdirako egoikiago ikusten dute. Ibilbide horiek erabiltzera animatzen gaituzte.

Hauxe izango da aurtengo udal zerga egutegia

2006. urterako zerga eta prezio publikoen tarifak onartu ondoren, errolda bidez kobratzen diren zerga ezberdinen ordainketa epeak eta helbideratuta dauden kasuetan zergak kontu korronteetan kobratzeko egunak zehaztu dira.

Trakzio mekanikoko ibilgailuen zerga
Martxoaren 1etik maiatzaren 2ra.
Helbideratuak maiatzaren 2an kontu korrontean kargatuko dira.

O.H.Z. (Ondasun Higiezin Zerga edo kontribuzioa), landa eta hiri izaerakoak

Maiatzaren 16tik uztailaren 4ra.
Helbideratutako zergak, uztailaren 1ean kargatuko dira zergadunaren kontu korrontean.

E.J.Z. (Ekonomi Jarduera Zerga)

Urriaren 1etik azaroaren 10era bitartekoa. Azaroaren 10ean kargatuko dira helbideraturiko erreziiboak.

Espaloian zehar ibilgailuak sartzea (badoa)

- Irailaren 1etik urriaren 1era bitartean.
Helbideraturiko erreziiboak urriaren 1ean kargatuko dira.

Ura, estolderia eta zaborra hiruhilabetero

4. hiruhilabetealdia (2005):

Otsailak 1- martxoak 15.

1. hiruhilabetealdia (2006):

Ekainak 1- uztailak 15.

2. hiruhilabetealdia (2006):

Irailak 1 - urriak 15.

3. hiruhilabetealdia (2006):

Azaroak 1 - abenduak 15.

Helbideraturiko erreziiboak honako data hauetan kargatuko dira:

4. hiruhilabetealdia (2005):

Martxoaren 1ean.

1. hiruhilabetealdia (2006):

Uztailaren 1ean.

2. hiruhilabetealdia (2006):

Urriaren 1ean.

3. hiruhilabetealdia (2006):

Abenduaren 1ean.

Asteroko merkatuaren erabilpen tasa:

1. Hiruhilabetea:

Apirilak 1- apirilak 30.

2. Hiruhilabetea:

Uztailak 1- uztailak 30.

3. Hiruhilabetea:

Urriak 1- urriak 31.

4. Hiruhilabetea:

Urtarrilak 1- urtarrilak 30 (2007)

Helbideraturiko erreziiboak epearen azken egunean kargatuko dira.

Errolda fiskalek, subjeto pasiboek ordaindu beharreko kuotak eta zergako elementuak biltzen dituzte, eta hauek jendaurreko ikusgai jarriko dira udaletzeko bulegoetan dagozkien kobrantza-

epeak hasi baino hamabost egun lehenagotik eta hamabost eguneko epez.

Aipatu erroldetako zergak, dagozkien erregistroetan alta ematerik suposatzen ez dutenez gero, baizik eta subjeto pasibo bakoitzari dagokion erroldan alta eman zaion egitate zergagarri bati dagozkionez, kolektiboki jakinaraziak izango dira, martxoaren 8ko 2/2005 Zergen Foru Arau Orokorrak 98.3 artikuluan aurreikusitakoaren babespean.

Errolden erakustaldi publikoen aurka birjarpeneko errekurtsioa tartearri ahal izango da erakustaldi publikoko epearen azken egunetik zenbatzen hasi eta hilabete epean. Nolanahi ere, borondatezko epea amaitu ondoren hilabete epean tartearri ahal izango da.

Obra baimenaren zergak, Jarduera irekierak. Gobernu batzordeak hartutako erabakiarekin batera dagokion zerga kitapena, subjeto pasiboak adierazitako helbide fiskalean jakinaraziko da, bertan adierazitako borondatezko epealdian ordainketa egin beharko delarik, hauek ez dira helbideraturik bidaliko, bakoitzak udal zerga bilketa edo erakunde laguntzaileetan egin beharko du.

Adierazitako epe hori bukatu ondoren eta zergadunak zerga ordaindu ez duen kasuan, premiamenduzko prozedurari ekingo zaio, ordaindu ez diren kuotek gainkargu, kostak eta interesak hartu beharko dituztelarik bere gain.

*(Usurbilgo udaletzeko errenta teknikariak igo-
rritako informazioa).*

Kontribuzioaren gaineko zergan, familia ugarietzat hobariak

2006 urteko kontribuzioan, edo teknikoki esanda Hiri Izaerako Ondasun Higiezinaren gaineko Zergan, familia ugarietzat hobariak izango dira.

Usurbilgo Udalak 2006 urtean indarrean egongo diren zerga, tasa, prezio publiko eta kontribuzioen ordenantza fiskalak onartu ditu. Hauen tartean, hiri izaerako ondasun higiezinaren gaineko zerga edo kontribuzioari dagokiona. 2005 urtean

bezala, familia ugarietzat hobaria onartu da. Interesatuak informazioa udaletzeko zerga-bilketa sailean eska dezakete.

Hobariaz baliatzeko baldintza formalak

Aplikazioaren zerga aldiari dagokion sortze egunean familia ugariaren titular izaera daukaten Hiri Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren subjektu pasiboek dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

-Interesdunaren eskabidea, udalak erraztuko du ereduia.

-Familia ugarien tituluaren fotokopia konpultsatua.

-Udalak urtarilaren 1ean familia unitateko kideak erroldatuak daudela egiaztatuko du.

Otsailaren 28a baino lehen

Hobariaren eskaera 2006ko otsailaren 28a baino lehen egin beharko da.

18/98 auziaren epaiketa, beste bi astez atzeratua

Aitor Iberok eta Xabier Alegriak hitzaldi interesgarria eskaini zuten Sutegin

Hiru asteko etenaren ondoren, iragan astelehenean ekin zioten berriro Espaniako Auzitegi Nazionalen 18/98 auziko epaiketari, baina saioa hasi eta lasterrera bertan behera geratu zen berriro, beste bi astez. Epaimahaiak emandako hiru asteetan 75/89 aurretiazko diligentsietan biltzen diren ehun mila agiriak behar bezala aztertzeko astirik ez zutela izan agertu zuten defentsako abokatuek, eta, beraz, baldintza horietan ez zegoela auzipetuen defentsa eskubidea bermatzerik. Otsailaren 13an ekingo zaio berriro epaiketari.

Atzerapen berria ezagutu baino lehen, auzi honi buruzko hitzaldia egin zen Sutegin. Aitor Ibero abokatuak eta Xabier Alegria auzipetuen eskutik, epaiketari buruzko beste datu batzuk jaso genituen, normalean auziaren inguruko kroniketan azaltzen ez diren kontuak.

Aitor Ibero abokatuak lehenik eta behin epaimahaiaren jarrera azpimarratu zuen. Hasieratik «modu gogorrean» jokatzen ari dela aipatu zuen Sutegin eskaintako hitzaldian. Aitor Iberoren esanetan, «nire sentsazioa da epaimahaia oso fortzatu eta etorri dela epaiketara. Epaiketa era gogorrean hasi dute eta ez dute diskurtso politikorik entzun nahi». Premisa horiekin hasi zela epaiketa esan zuen Ibero abokatuak.

Donostiako abokatu honek adierazi zuenez, «Angela Murillo epaimahai burua aurretik ezagutzen genuen. Epaiketa hau hasi baino lehen, harreman normal bat mantentzeko modukoa» zela esan zuen Iberok. Baina 18/98 auzia hasi zenean bere jarrera, estrainekoz, bestelakoa izan zela adierazi zuen.

Epaituen defentsa prestatzeko zailtasun handiak izan dituztela azaldu zuen Iberok: «froga gisa aurkeztutako dokumentuak eskuratzeko traba ugari izan ditugu». Auzipetuei azalpenak emateko aukera ukatzea normala ez dela adierazi zuen Donostiako abokatuak. Berezik



18/98+ USURBILGO LAN-TALDEAK ANTOLATU ZUEN HITZALDIA.

larritzat jo zuen 1989ko diligentsiak eskuratzeko defentsa abokatuak jarri dizkieten oztupoak.

Honen harira, Euskal Herria Watch abokatuaren elkarteak orain arteko prozesu osoa baliogabetzeko eskatu du. «Teknikoki posible da baliogabetzea, baina borondate politikoa behar da Auzitegi Nazionalaren aldetik», adierazi zuen Jose Manuel Hernando abokatuak prentsaurreko bidez. Prozesua baliogabetu eta instrukzioa hasieratik hasi gabe, ez lirateke jada bermeak berrezarriko, elkarrearen ustez. «Bidegabekeria gehiegi izan dira; auzipetuen eskubide zibil eta politikoen aurkako atentatua da».

Zigor eskaera handiena, Xabier Alegriarentzat

Orain eta Ekin ataletan auzipetuta dago Alegria. Euskaldunon Egunkariaren aurkako operazioan ere atxilotua izan zen eta atxilotu ondorengo bost egunetan Guardia Zibilak bortizki torturatu zuela salatu zuen. Urtarrilaren 9an, 18/98 auziko epaimahaiaren aurrean zera adierazi zuen: «tortura lan tresna gisa erabiltzea bermatzen duen auzitegi berezian ez dut erantzutuko». Sutegin antzeko adarazpenak egin zituen. Bere ustez, epaiketa hau torturekin eraikia izan da. Are gehiago,

Otsailaren 18an, manifestazioa Bilbon

Bilboko kaleak jendez eta duintasunez bete behar ditugu». Hala aurkeztu zuen Maite Aristegi 18/98+ plataformako kideak otsailaren 18an Bilbon egingo den manifestazioa.

Otsailaren 18ra arte, gizarte eragile eta alderdi politikoekin bilerak egingo dituzte, ahalik eta atxikimendu gehien bildu arren. «Gizarte eragileen inplikazioa beharrezkoa delako gizartea mobilizatzeko», adierazi berri du Mariano Ferrer kazetariak, 18/98+ lan taldeko kideak.

«Audientzia Nazionalen, herritarren eskubideak bost axola die. Lehenik zigorra ezartzen dute eta gero gerokoak».

59 auzipetuetatik Alegriarentzat eskatu dute zigor eskaera handiena. Fiskalak 51 urteko espetxe zigorra eskatu du. Eskaera hori neurrigabea dela iruditzen zaio.

Epaiketak oinarri politikoak dituela ere adierazi zuen Alegriak. «Euskal Herria eraikitzearen alde egiten duten eragileen aurkako epaiketa» dela salatu zuen Sutegin eskaintako hitzaldian.

"Harrera ona izan du Euskara Planak"

Ander Arteagak Fagor Automation-Berriolako Euskara Plana koordinatzen du

Aurreko astean, Buruntzaldeko lan munduan euskara sustatzeko planen berri eman genuen. Usurbilen, hiru dira ekimen honekin bat egin duten lantegiak: Fagor Automation-Berriola, S. Izaguirre eta Victorio Luzuriaga. Eusko Jaurlaritzaren laguntza ekonomikoa jasotzeaz gain, Buruntzaldeko udalen babesa ere badute. Emun Lana Euskalduntzeko Kooperatibaren aholkularitzari esker, plana aurrera eramatea errazagoa egiten zaie.

NOAUA! Noiz eta zergatik jarri zenuen martxan Euskara Plana?

Ander Arteaga. 2000ko abenduan egin zen planaren diseinua eta 2001eko martxoan jarri zen plana martxan. Esan behar da kooperatibak beste enpresa moten aurretik doazela gai honetan. Arrasaten, Fagorrekoak 2000 urtean hasi ziren Euskara Planarekin. Horrek gure lana erraztu zuen. Arrasatekoa martxan jarri zenean, eskaera Berriolatik barrutik atera zen. Zentzu horretan, gu pribilegiatuak izan gara. Fagorrek jada konpromisoa hartua zeukan Arrasate aldean eta horrek asko erraztu zituen gauzak.

Dena den, Berriola zaharrea, urrats batzuk eman ziren 80eko hamarkadan. Hemen, beti egonda euskararekiko sentibiltasuna txiki bat.

ANDER ARTEAGA

"Zuzendaritza ere inplikatu egin da gai honetan. Horrek asko erraztu du dena"

N. Langileen artean, zer nolako harreara izan du planak?

A. A. Ez dugu kontrako jarrerarik eduki. Jarrera batzuk pasiboak izan dira baina, orokorrean, harrera oso ona izan du planaren egitasmoak. 92 langile gara eta 55 zerikusi zuzena dute planarekin. Batzuk euskara klaseak hartzen, besteak erabilera taldeetan parte hartzen... Enpresaren %60 inplikatzea oso garrantzitsua da.



ANDER ARTEAGA, FAGOR AUTOMATION-BERRIOLAKO ATARIAN.

tzitsua da.

Aipatzekoa da zuzendaritza ere inplikatu egin dela. Horrek ere, asko erraztu du dena.

N. Plan honek ze konpromiso eskatzen dizkio langileari?

A. A. Labur esanda, euskaraz lan egin nahi duenari euskaraz lan egiteko aukera ematea. Konpromisoak, norbanakoak, oso txikiak dira: hizkuntza jarrerak aldatzea, ahozko komunikazioan; sortzen dituzun dokumentuetan, ahal dela idatziz euskaratu... Borondate pixka batekin erraz bete daitezkeen konpromisoak dira.

Euskara Eskola ere martxan da. Hemen bertan ematen dira eskolak baina lan orduetatik kanpo. Langileak ordu horiek berreskuratu egin behar ditu. Enpresak matrikula ordaintzen duenez, ikasleari doan ateratzen zaio.

N. Planak euskararen egoera hobetu duela uste al duzu?

A. A. Bai, gainera haste hutsak ekarri zuen jende askoren jarrera aldatzea. Indar hori dinamizatzea eta mantentzea lortu behar dugu. Kontuan hartu arlo askotan zerotik hasi garela. Hemen erabiltzen diren barne-dokumentu gehienak orain bi hizkuntzatan daude. Bere garaian, Berriolako webgunea euskaraz edukitzea pentsaezina zen. Baina euskaraz ere badago. Berriolako zuzendariak berak proposatu zuen. Euskara Planak horrelako gauzak ekarri ditu. Gauza batzutan mugatuta gaude baina beste gauza batzutan asko irabazi dugu.

Bost urte eta gero, balorazioa positiboa

Euskara Planaren diseinua 2000 urte bukaeran egin zen eta 2001eko martxoan jarri zen indarrean. Ordutik hona, euskararen egoerak nabarmen egin du gora.

- Euskararen erabilera gora, ahoz eta idatziz: egungo indize orokorra, %37koa.

- Euskararen erabilera, altua; %40koa, ezagutza %60koa dela kontuan izanda.

- Enpresan Euskara Plana era naturalean txertatu da.

- Kontrako joerarik ez da izan.

- Enpresan naturaltasunez entzuten da euskara.

- Zuzendari batzuen jarrera aldatzea, haserako ezjakintasuna medio.

- Aurrera begira, ezagutza, erabilera, motibazioa eta Euskara Plana enpresaratzean jarri nahi ditugu indarrak.

Emun Lana Euskalduntzeko Kooperatibak eginiko balantzetik jasotako datuak.

Luzuriagan eta Izaguirren ere, Euskara Plana martxan

Fagor Automation-Berriolako kasuan erreparatu dugu baina Luzuriagan eta S. Izaguirren ere martxan da Euskara Plana, Fagorrek Euskal Herrian dituen gainontzeko lantegietan bezalaxe.

Santa Ageda bezpera degu...

Santa Ageda otsailaren 4an dela iragarri dugu behin eta berriz. Baina oker geunden. Otsailaren 5a da Santa Ageda gurtzeko eguna. Bezpera, bistan denez, otsailaren 4a. Aurten larunbatarekin egokitu da bezpera, Santa Agedako kantua eta koplak gogora ekartzeko eguna. Zubietan, arratsaldeko 19:00etan hasiko dira kantuan. 21:00ak arte iraungo du koplak saioak. Asier Aizpurua izango da koplak jarriko dituen gaztea. Hernaniko Bertso Eskolan dihardu eta etorkizun polita du aurretik. Afariarekin amaituko dute Santa Ageda bezperako ospakizuna.

Santa Agedako koplak maiz kantatu ditugu. Baina nondik dator kondaira? Ba al dakigu zer kantatzen ari garen? Despistatuontzat, hemen duzue saretik.net webgunean topatu dugun informazioa.

Santa Ageda, mendebaldeko lehengo-tariko birginita-martiria da. Sizilian jaio zen 230ean eta Katanian martiritatu zuten 251eko otsailaren 5ean.

Kondairak dioenez, neska ederra zen Ageda. Siziliako gobernadoreak, Quinciano zuen izena, berarekin ezkondu nahi zuen, baina Agedak, bene-benetakoa kristaua zenez, ez zuen onartu. Quincianok, mendekua hartu nahian, kartzelan sartu zuen.

Izugarritzko torturak jasan behar izan zituen Ageda gazteak, hil arte. Besteak beste, bularrak moztu zizkieten.

Euskal Herrian ospatzen den Santa Agedak mito paganoetan du oinarria. Egun horretan egiten diren afariak eta Santa Agedaren inguruko festak zerikusi handia dute Inauteriekin.

OTSAILAREN 4AN

“Zubietan arratsaldeko
19:00etan hasiko dira
kantuan”

Inauteriak inausketa-garaia ziren, zuhaitz adarrak kimatzen ziren garaian. Badirudi, jai horien sustraian gizon-ema-



IAZ, UDARREGIKO IKASLEAK
KALERA ATERA ZIRENEKO IRUDIA.

kumeen arteko harreman amodiozkoak zirela nagusi.

Elizak giro hori garbitu eta nolabait “bataiatzeko” Santa Agedaren jaia antolatu zuen. Herri batzuetan Santa Ageda egun handizat hartu zen. Gaur egun ere, hainbat parroquia eta ermitatan ospatzen da Santa Ageda eguna.

Egun hau bezperatik ospatzen da eta ohi denez, koru edo abesbatzak etxerik etxe, kalerik kale aritzen dira koplak kantatzen.

Zortzi bertsoz osatutako kantua

- I. Zorion, etxe hontako denoi!
Oles egitera gatoz,
aterik ate ohitura zaharra
aurten berritzeko asmoz.
Ez gaude oso aberats diruz,
ezta ere oinetakoz.
Baina eztarriz sano gabiltza,
ta kanta nahi degu gogoz.
- II. Santa Ageda bezpera degu
Euskal Herriko eguna,
etxe guztiak kantuz pozteko
aukeratu deguna.
Santa maitea gaur hartu degu
gure bideko laguna.
Haren laguntzaz bete gentzake
egun hontako jarduna.
- III. Siziliako uharte ederrak
emana digu lorea.
Han jaio baitzan gure Ageda,
zorioneko gaztea.
Txikitatikan gogoz hartu zun
Jesukristoren legea.
Maitasun honek ekarri zion
bihotzeko poz bete.
- IV. Edertasunez jaunak apaindu
zuan Ageda gaztetan.
Haren begiak izar bi ziran,
aurpegi gozo haretan.
Gizon gaiztoen grina zitalak
esna zitzakeen benetan.
Laster izutu zen Kintziano
Agedaren ederretan.
- V. Agedak bere maite bakarra
Jesus aukeratu zuan.
Horregatikan beste maiterik
ez zan harentzat munduan.
Kintzianoren eske guztiak
arrez baztertu zituan.
Baina agintarik gaizto harek
kristautzat salatu zuan.
- VI. Emakume gaizto baten mende,
sartu zuten giltzapean,
Agedaren bihotz garbi hura
zikin ote zezakean.
Alperrik baina ahalegindu zen
andre lizuna lanean.
Honek esanak ez ziran sartu
Agedaren bihotzean.
- VII. Amorrubiz oinutsik jarri
dute Ageda zintzoa,
txingar gorien gainean gero
ibilarazi gaixoa.
Ondoren, bular bat ebakita,
uzten dute urratua.
Baina Jainkuak bihurtu zion
gau hartan bular mindua.
- VIII. Alperrik gizon gaiztoak zuten
oinazez erdi hilik utzi.
Jesukristoren maitasun hartan
ez zuna inola etsi.
Otoi gozotan gogoa isuriz
mundu hontatik ihesi,
zeruetako zori ederra
betiko zun irabazi.



Maite Gonzalez idazlearekin izan gara



SEIGARREN MAILAKO IKASLEAK

Urtarrilaren hamabian Maite Gonzalez idazlea ikastolara etorri zen. Seigarren mailako ikasleok galdera ugari egin genizkion “Lapitz baten ibilerak” liburuari buruz.

Bere arkatx bilduma erakutsi zigun, egurrezko kutxa txiki batean ekarri zituen. Maitek esan zigun beti eramaten duela ondoan koaderno txiki bat bururatzen zaizkion ideiak idazteko. Batatz beste urtebete behar izaten du

liburu bat idazteko eta lan gehiena uda partean egiten duela esan zigun. Gure ustez lan polita da baina baita gogorra ere.

Oso arratsalde interesgarria izan zen, oso gustura egon ginen.

“Lapitz baten ibilerak”

Gauza mendre xumea naiz, luzaroan zokoz zoko ibilitakoa. Orain gutxitua eta eskastua banago ere, garai batean marra hori-beltzeko haga luzitzen nuen. Ai, garai bateko ibilerak! Orduko denborak! Baina hainbeste ibileraren ondo-

ren eskastua nago; horregatik, kutxa ilun honetan egotea besterik ez zait gelditzen. Hemen, ilunpetan sartuta egonda, denbora nolabait pasa behar-eta, ibilerak gogoratzean arrapaladan puntaratzen zaizkit galderak nola erantzunak.

FITXA TEKNIKOA

Izena: Lapitz baten ibilerak

Idazlea: Maite Gonzalez Esnal

Marrazkilaria: Iñaki

Martiarena "Mattin"

Saila: Igelio Igela

Urtea: 1998

Or.: 64 orrialde



Lehen postuetara gerturatu nahian

Usurbil Kirol Elkarteko 1. Territorial mailako eskubaloit taldea 2. Nazional mailara iristeko iguera fasea jokatzeko txartela ematen duten lehenengo bi postuetatik zertxobait urrundu da azken aste hauetan. Lehenengo itzulia liderrarengandik 4 puntura amaitu zuen Antonio Castrok zuzenduriko taldeak eta pasa den asteburuan garaipena eskuratu bazuen ere, 6 jardunaldiren faltan 5. postuan dira usurbildarrak, lehen postuetatik 8 eta 6 puntura.

Azken hiru denboralditan bezala, iguera fasea jokatzeko aukerak ihes egin diezaioke eskubaloit talde nagusiarri. Lehen itzulia amaitzerakoan lehen bi postuetatik gertu zeuden. Bigarren itzuliko lehenengo neurketan ere garaipena eskuratu zuten, baina Oiardo kiroldegian aurreko postuetan zegoen Ford Mugarri Arrasate taldearen aurka era xelebrea galduta partidak min handia egin zion taldeari.

Izan ere, neurketa hau 28-28 amaitu zutela uste zuten guztiak. Markagailuan hala jartzen zuen, bi taldeetako jokalariek ere ados zeudela zirudien norgehiagokako azken segundoetan, baina epaileak bestelako emaitza bat jarri zuen aktan: 28-29. Berdinketarekin lehen bi postuetatik gertu gelditzen ziren, baina aurkari zuzenaren aurka punturik lortu gabe



ZUMARRAGAN JOKATUKO DUTE ASTEBURU HONETAN.

uztea zigor handiegia izan zen usurbildarrentzat.

Urnietan jokatu zuten hurrengo asteburuan, eta azkeneko postuetan zen bertako taldea. Lo irten ziren Antonio Castrok zuzendutako jokalariek eta atsedenaldira 9 goleko desabantailarekin iritsi ziren. Bigarren zatirako esnatu ziren, baina berandu. Izan ere, azkenean 25 eta 23 galdu zuten.

Pasa den asteburuan, aldiz, garaipenaren bidea berreskuratu zuten berriz ere. Larunbatean jokatu zuten ANTT-Solflan Elgoibar taldearen aurka eta 30-23 nagusitu ziren. Garaipen honekin sailkapeneko 5. postuan jarrai-

tzen dute. Donibane Majestik liderra 8 puntura dute eta bigarren postuan dagoen Urola Agip 6 puntura. Hala ere, bi talde hauek partida bat gehiago jokatu dute.

Asteburu honetan aipatutako azken talde hori izango dute aurrez aurre. Zumarragako Ispilla kiroldegian jokatu dute Urolaren aurka eta lehen bi postuetara gerturatzeko azken aukeretako bat izan daiteke. Helburu hori lortzea, ordea, ez da batere erraza izango. Izan ere, lehen itzulian jokaturako partidaren 24 eta 29 galdu zuten usurbildarrek Oiardo kiroldegian.

JOSU ARANBERRI

Urrezko domina Oiana Blancorentzat

Usurbil Judo Taldeko Oiana Blancok urrezko domina eskuratu zuen urtarrilaren 28 eta 29an Madrilen jokaturako senior mailako Espainiako Judo Txapelketan. Herriko taldeko 6 kirolari izan ziren txapelketa honetan eta oriotarrak lortu zuen domina bakarra. Iaz brontzezko domina lortu zuen, baina aurten bera izan da txapelduna 48 kiloz azpiko kategorian. Pasa den urteko txapeldunari eta txapeldunordeari irabazita lortu zuen gainera Oiana Blancok urrezko domina.

Berdinketak bata bestearen atzetik

Usurbil Futbol Taldeko 1. Errejonial mailako taldea markak hausten ari da. 12 jardunaldi daramatzate galdu gabe, baina horietatik 9 partida berdinketan amaitu dira. 5 partida irabazita, 10 berdinduta eta 3 galduta sailkapeneko 9. postuan kokatuta daude. Asteburu honetan, berriz, 2. jubenil mailako taldeak bakarrik jokatu du Zubietan. Iguera faseko 4. partida izango dute Beti Ona taldearen aurka jokatu dutena. Nesken taldeak, berriz, asteburu honetan ekingo dio Kopari Andoainen.

Kadete mailako neskak finalerdietan

Kadete mailako nesken eskubaloit taldeak Federazio torneo-ko finalerdiak jokatzeko txartela lortu du. Ligaxkan jokaturako bost partidak irabazi dituzte eta finalerdietan beste multzoan 2. postua eskuratu duen Groseko K.E. taldearen aurka jokatu beharko dute. Bestalde, Gipuzkoako txapelketa jokatzeko ari den jubenil mailako eskubaloit taldeak garaipenekin jarraitzen du. Jokaturako 11 neurketak irabazi dituzte. Larunbatean Pneumax Elgoibar taldearen aurka jokatu dute Oiardon.

Aholkua !!

Ingurumena zaintzeko ardura etxean hasten da

Gure eguneroko ohitura errotuenek zerikusi handia dute planetaren degradazio globalarekin. Zaborra bereiztu gabe botatzek eta material birzikla ezinetan ontzi-ratutako elikagaiak erosteak lagundu egiten dute hein handi batean ingurumena kutsatzeko.

Murriztu ezazu

- Ez hartu erabilera bakarrekiko ontzi-rik.

- Erosketetara joatean, eraman poltsa etxetik.

- Erosi produktuak pisura.

Berrerrabil ezazu

- Idazteko papera erabiltzean, ez bota

orria alde batetik idatzita dagoenean. Erabili beste aldeak oharrak eta zirriborroak egiteko.

- Erabili berririko supermerkatuko plastikozko poltsak zaborrarentzat.

- Ez bota kristalezko tarrorik. Oso baliagarri izaten dira pasta, irina, lekiariak eta antzekoak gordetzeko.

Birzikla ezazu

- Bereiztu zaborretarako materialak.

Poltsa banatan gorde zabor organikoak, papera eta kartoia, beirazko ontziak eta gainerako ontziak (brik, plastikoa, latak...). Eta bota hondakin bakoitzari dagokion edukiontzian.

- Aluminioko tapoi bakar batek edukiontzia bete beira honda dezake.



- Estatuko urteko paper kontsumoa asetzeko 20 milioi arbola handi bota behar izaten da. Har itzazu neurriak: kontsumitu paper gutxiago, erosi paper birziklatua eta bidali birziklatzera ahalik eta paper gehien.

Eguneko goardiako farmaziak

Otsailak 2, osteguna
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Otsailak 3, ostirala
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Otsailak 4 larunbata
Oa Kontzeju Zaharra 11 Usurbil
De Miguel, Nagusia 32 Lasarte

Otsailak 5, igandea
De Miguel, Nagusia 32 Lasarte

Otsailak 6, astelehena
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Otsailak 7, asteartea
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Otsailak 8, asteazkena
De Miguel, Nagusia 32 Lasarte

Otsailak 9, osteguna
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Otsailak 10, ostirala
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Otsailak 11, larunbata
Iturralde, Bordaberri 1 Usurbil
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Otsailak 12, igandea
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
Aizpuru Farmazia, Latsunbeberri 11,
Hernani. 943 336 077 (Urte osoan).

2006ko egutegi osoa: www.noaua.com

Zubieta-Donostia TST autobusak

ASTEGUNETAN
Zubieta-Donostia
7:55* / 9:30(T) / 13:15(T) /
14:35*(T) / 19:15(T)

Donostia-Zubieta
(Gipuzkoa plaza)tik
7:15* / 9:00 / 12:45(T) /
13:45* / 18:45

LARUNBATETAN
Zubieta-Donostia
8:15(T) / 12:45 /
15:15(T) / 21:35(T)

(Gipuzkoa plaza)tik
12:15(T) / 14:30(T) / 21:00(T)

JAI EGUNETAN
Zubieta-Donostia
11:25(T) / 13:30(T) / 15:30(T) /
21:35 (T)

Donostia-Zubieta
(Gipuzkoa plaza)tik
11:00(T) / 13:00(T) / 15:00(T) /
21:00 (T)

* Eskola egunetan.

T Autobus aldaketa beharrezkoa da. 943 361740.

Autobus ordutegia
Donostia-Zarautz

Donostia	Urbil	Usurbil	Zarautz
07.40	08.05	08.25	
08.00	08.25**		
08.00	08.20	08.25	08.45
08.40	09.05	09.25	
09.00	09.20	09.30	
09.00	09.20	09.25	09.45
09.40	10.05	10.25	
10.00	10.20	10.25	10.45
10.40	11.05	11.25	
11.00	11.20	11.25	11.45
11.40	12.05	12.25	
12.00	12.20	12.25**	
12.00	12.20	12.25	12.45
12.40	13.05	13.25	
13.00	13.20	13.30	
13.00	13.20	13.25	13.45 #
13.40	14.05	14.25	
14.00	14.20	14.30**	
14.00	14.20	14.25	14.45
14.40	15.05	15.25	
15.00	15.20	15.30	

■ Soilik larunbata gauze # Larunbatetan, Orion autobus aldaketa Aiaa
■ Larunbat lanegunetan ■ Asteburutan, jaietan **Aiarraino

Harremenatarako: 902 54 32 10 / www.euskotren.es

Autobus ordutegia
Zarautz-Donostia

Zarautz	Usurbil	Urbil	Donostia
06.45	07.05	07.30	
06.45	07.05	07.10	07.30
07.15	07.35	08.00	
07.45	08.05	08.30	
08.15	08.35	09.00	
08.45	09.05	09.30	
08.45	09.05	09.15	09.40
	09.30	09.35	10.00*
09.45	10.05	10.30	
09.45	10.05	10.15	10.40
	10.30	10.35	11.00
10.45	11.05	11.30	
10.45	11.05	11.15	11.40
11.45	12.05	12.30	
11.45	12.05	12.15	12.40
12.45	13.05	13.30	
12.45	13.05	13.15	13.40
	13.30	13.35	13.55*
13.45	14.05	14.30	
13.45	14.05	14.15	14.40

*Aiarratik dator ■ Asteburutan, jaietan

■ Larunbat lanegunetan ■ Soilik larunbata gauze

Harremenatarako: 902 54 32 10 / www.euskotren.es

EuskoTren ordutegia

Donostia	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Donostia
05.47*	06.03*	06.20*	06.08*	06.24*	06.39*
06.17*	06.33*	06.50*	06.38*	06.54*	07.09*
06.47*	07.03*	07.20*	07.08*	07.24*	07.39*
07.17	07.33	07.50	07.38*	07.54*	08.09*
07.47	08.03	08.20	08.08	08.24	08.39
08.17*	08.33*	08.50*	08.38*	08.54*	09.09*
08.47	09.03	09.20	09.08	09.24	09.39
09.20#	-	09:47#	10.08	10.24	10.39
09.47	10.03	10.20	11.08	11.24	11.39
10.47	11.03	11.22	11.22#	-	11.47#
11.47	12.03	12.20	12.08	12.24	12.39
12.17*	12.33*	12.50*	12.38*	12.54*	13.09*
12.47	13.03	13.20	13.08	13.24	13.39
13.17*	13.33*	13.50*	13.38*	13.54*	14.09*
13.47	14.03	14.20	14.08	14.24	14.39
14.17*	14.33*	14.50*	14.38*	14.54*	15.09*
14.47	15.03	15.20	15.08	15.24	15.39
15.17*	15.33*	15.50*	15.38*	15.54*	16.09*
15.47	16.03	16.20	16.08	16.24	16.39
16.17*	16.33*	16.50*	16.38*	16.54*	17.09*
16.47	17.03	17.20	17.08	17.24	17.39
17.17*	17.33*	17.50*	17.38*	17.54*	18.09*
17.47	18.03	18.20	18.08	18.24	18.39
18.17*	18.33*	18.50*	18.38*	18.54*	19.09*
18.47	19.03	19.20	19.08	19.24	19.39
19.17*	19.33*	19.50*	19.38*	19.54*	20.09*
19.47	20.03	20.20	20.08	20.24	20.39
20.21#	-	20.48#	21.08	21.24	21.39
20.47	21.03	21.20	22.07#	-	22.32#
21.47	22.03	22.20	22.38	22.54	23.09

* Astegunetan bakarrik

Ez da Usurbilen geratzen

Harremenatarako: 902 54 32 10 / www.euskotren.es

Agenda !

Otsailak 6, astelehena

Oinarritzko ikastaroa KzGunea. Otsailak 6-17, 9:00-11:00 (gazteleraz).

Otsailak 7, asteartea

Adobe Acrobat Reader-i buruzko mintegia KzGunean. 11:00-13:00 (euskaraz).

Asteburuko pilota partidak

Otsailak 4, larunbata

Usurbilen, goizeko 11:00etan, Udaberri Txapelketako hiru partida.

- Eskuz binaka nagusiak 3. maila: Andatzpe Peña Pagola-Eibar (Iker Artola-Aitor Iturralde)

- Eskuz binaka nagusiak 2. maila: Andatzpe Peña Pagola-Eibar (Huizi-Urkia)

- Eskuz binaka nagusiak 1. maila: Andatzpe Peña Pagola-Arrasateko (Santxo-Arruti)

Otsailak 4, larunbata

Usurbilen, arratsaldeko 16:00etan, Gipuzkoako Eskolarteko Pilota Txapelketa. Denera 6 partida. Hiru benjamin mailakoak; beste hiru alebin mailakoak.

Otsailak 5, igandea

Donostiako Gaska trinketea, 12:00etan, Gipuzkoako txapelketa. Eskuz banaka finalerdiak: Andatzpe Peña Pagola 2 - Andatzpe Peña Pagola 1 (Jabier Santxo) (Mikel Landa)

Baserritar jantziak josteko ikastaroa Santuenea elkarte

Otsailaren 7an, arratseko 17:00etan, baserritar jantziak josteko ikastaroa hasiko da Santuenea Elkarte. Informazio gehiago: 943 371 535.

Literaturaren txokoa !

“Pololoak”, haurrentzat ez den komikia

Komiki-liburu hau Patxi Gallegok idatzi zuen 2004an. Eta ez da haurrentzat. Urte askotan ikusi ez dena eta aipamena mereziko lukeena. Horrez gainera, baina, lan guztiz dibertigarri, original eta kalitate handikoa osatu du. Komiki hutsa da atal batzuetan, eta irudiz hornituriko narrazio-testua besteetan. Xabinaitor superheroaren abentura harrigarri,



hiperboliko, ikusgarri eta lotsagabeen bitartez, Euskal Herriko topiko batzuen inguruan irribarre ironikoa bilatu du Patxi Gallego komikilaria (Errenteria, 1973) **Pololoak**, **Poxpoliñen lurriña** liburuan. Marrazkiak zuri-beltzekoak nahiz koloretakoak eta komikigintza eta narratiba konbinatu ditu egileak liburuan. Elkar argitaletxeak kalera-
tu du liburua, eta egileak eskertu dio argitaletxeari liburua berak nahi zuen bezalaxe argitaratzen utzi izana.

Egin kontu !

Herri bideen inbentarioari alegazioak egiteko hilabeteko epea ireki da

Usurbilgo herri bideak zein diren eta zein egoeratan dauden argitu nahi da. Udalak, dagoeneko, lehen urratsa eman du. Abenduko ohiko udalbatza plenoan, hasieraz onartu zen herri bideen inguruan egin den proposamena. Hasierako onespena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen urtarilaren 31n. Orain, alegazioak egiteko hilabeteko epea izango da. Lurjabeek, jabe mugakideek, edozein eskubideren titularrek eta, orohar,

herritar denek alegazioak egiteko aukera izango dute.

Jendeaurreko epean bildutako guztiarekin eta dagozkion aldaketak egin ondoren, behin betiko onespena emango lioke udalak herri bideen inbentarioari.

Lan honekin udalak argi izango luke zein liratekeen herri bide eta zein ez. Hortik aurrera beste fase bat zabalduko litzateke: bide hauen mantenua eta zenbait kasutan berreskuratzea nola bideratu.

Zuen publizitatea hemen

☎ 943 360 321
publizitate@usurbil.euzkadi.net

ERRAZKIN

IGELTSERITZA OROKORRA

Kale Nagusia 1
943 420565 - 943 435 470
943 365 125

Industri eta Iragarki K

SERIGRAFIA

TANPOGRAFIA

OSU

943 371 954
UGALDEA POL.36.2-USBIL

MIKEL IZAGIRRE

ELEKTRIZITATEA

943 365 095
609 068 111

5012 ARRI ETXEA 37 KALEZAR

ETXEBIZITZA

- Gazte euskaldun bat naiz eta Usurbilen edo inguruetan, bakarrik edo konpartituta etxe bat alokatuko nuke. 943361229 Joseba.
- Usurbilgo bikote gazte batek pisua alokatu nahi-ko luke Usurbilen. 679 185 102.
- Usurbilen pisua bat alokairuan hartuko nuke. Tel: 630 032 779.
- Usurbilen edo inguruetan 3 haur eta 2 helduentzat alokairuan hartzeko pisu bat bilatzen dut premiaz. 620 646 769.
- Usurbilen alokairuan etxe bat behar dugu. Ordainketa bermatua. 943365737.

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Garaje itxi bat alokatzen da Etxealdian, 22m2, kotxea erraz sartzen da, 76 euro. Interesatuak deitu arratsalde 943373185 telefonora.
- Lokal bat daukagu alokairuan 70m2koa. Interesatuak deitu 943 372 034.
- Aparkalekuak salgai Bizkarra 1-8 etxe taldean, Kale Nagusia 3. 607 905 859 (Imanol).
- Honda Dominator 650 cc motorra egoera oso onean. 667 172 010 (Jon).
- Garaje itxi bat alokatzen da Kale Nagusian. Interesatuak: 943 361 235.

LANPOSTUAK

Lan-eskaerak

- Bakeiran snow-ko klaseak eta ikastaroak ematen dira. Alojamentua ere eskaintzen da. Informazio gehiago: 652 651 906 / www.upriding.com webgunea.
- LH eta DBHko klaseak ematen ditut euskaraz zein erdaraz. Majisteritza ikasia eta esperientziaduna klase partikularrak ematen. 635209193.
- Bi neska lizentziatu eta esperientziadun LH eta DBHko haur eta gazteei klase partikularrak ematen ditugu euskaraz zein gazteleraz. Interesatuak: 653711574.
- Emakume bat eskeintzen da etxeko-lanak egiteko, pertsona helduak zaintzeko edota antzeko lanetarako. 620 646 769.
- Kamarera euskaldun bat eskaintzen da astelehenetik ostiralera lan egiteko. 667 694 469.
- Emakume bat eskaintzen da aztehenetik ostiralera, pertsona helduak edo ezinduek zaintze-

ko. Telefonoa: 626 641 155 Mariaje.

- Taberna batean egingo nuke lan edo antzeko zerbaitetan. 652 757 495.
- Portalak eta eskailerak garbitzeko neska bat eskaintzen da. Esperientzia horrelako lanetan. 690 784 113.
- Oporretako, ospakizunetako, edozein motatako bideoak montatzen dituen profesionala eskaintzen da. 943555835/ 617242660.

Lan-eskaintzak

- DBH 1eko ikasle bati etxean euskeraz klaseak emateko pertsona baten bila gabiltza. 650953833
- Pertsona bat behar da etxeko lanak egin eta bi haur zaintzeko. Astelehenetik ostiralera goizeko 7tik, 12ra. Interesatuak deitu 618700479.
- Etxeko lanak egiteko eta haur bat zaintzeko egun osoz, pertsona baten bila gabiltza. 645403905.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Urtarrilaren 21ean iluntzean 9 urteko mutiko baten bizikleta txuri-gorria galdu genuen frontoi atzean. Aurkitu duenak deitu 943360551.
- Pasa den astean haur bufanda bat galdu da. Urdin iluna eta bi marra txuri ditu. Ikastolatik plazarako bidean galdu da. Bilatu duenak 943370420 telefonora deitu. Mila esker.
- Graduatutako betaurrekoak galdu ditut, Bordaberri kale inguruan. Aurkitu badituzu NOAUA!ra ekarri mesedez.
- Fatxada margotzeko pintura naranja salgai daukat, kalitate onekoa eta prezio onean. 635 209 235.
- Bustner Fun modeloko 5 pertsonentzako karabana salgai. Komun kimiko bat eta sukaldea. 1.200km. Prezioa 6.000 e. 629 680 214.
- Umea eramateko mendiko motxila bat erosiko nuke. Tlfnoa: 605 72 48 24
- Emuak salgai. Bi emu, arra eta emea modu onean saltzen dira. 657 633 461.
- Urtarrilaren 25ean txamarra bat galdu zen frontoi atzeko jolas-lekuan. Urdin ilun kolorekoa eta 10 urteko mutil batena. Aurkitu baduzu NOAUA!ra ekarri.
- Pago egur txikitua eta lehorra salgai. Etxera eramaten da. Tf. 615 755 762.

Txerrimunik ordainetan !!



Zorionak! Urte asko pasa dira baina egun handia dugu denen artean ospatzeko datorren otsailaren 4an. Urrezko ezteiak ospatuko dituzue eta zure seme eta biloben partez zorionak eta muxu handi bana. Denak zuekin izango gara egun polit bat pasatzeko.



Zorionak zuei! Zorionak beti! Paulak 6 urte egin zituen urtarrilaren 28an eta Nahiak berriz 2 urte egingo ditu otsailaren 6an. Zorionak eta muxu potolo bana etxeko guztien partez.

Zorionak Intza! Otsailaren 9an sei urte beteko dituzu. Egundona pasa eta zorionak etxeko koen partez!



HILDAKOAK

- Eloy Blazquez Ovejero, urtarrilaren 29an.

HILDAKOAK

- Joakin Eizagirre Azpiroz, urtarrilaren 30ean.



JAIOTZAK

- Jon Galarraga Otermin, urtarrilaren 21ean.

Larazaintza
Sartak
URTINEA
urtinea@euskalnet.net
Larazak
Larazak
Landareak

San Esteban
943 362 055
943 366 054 fax

J.ORBEGOZO
ITURGINTZA • GASA • BEROKUNTZA
BIZKARRA 1, 1.EBK 943372937 • 659602789

www.noaua.com

Albisteak edizio jarraituan

Zorion-agurren tarteak

Eztabaida foroak

Agenda

Zerbitzuak

Eguraldia

Aldizkaria, on line

Usurbildarrentzat eginiko webgunea



2017ko 11ak

USURBIL

ILGUR

Usurbil Urtarrilaren 25ko
nurtan 27ko hark 1er, Urtarrilaren
sustatu C NCHU I TET knk r k tzt k
USURBIL IIE I I DEN ZTE KET
znk ukur ntu r, Usurbil ulk k.
1 t k t z r k k st k s t n
tu n kum ntu r II SIE K NES EN
EM TE r k zu n.

n r z, t r k t k t z,
II SIE K NES EN EK kum ntu
n ur n r t IIL ETEk l n, r rk
h u G uz k k l z k r f z l n r t r t u t
h r m u n t k k n t z n h s t, t r t h r r t n U l
l z k r t z n n r k z t r u t h l k.
z k l z k u n k z t u t z n.

Zu t k h r r t r u t k u r z n u t
Usurbil n s t k U l n u r k z t u t
l t z k, u n k t u r k Usurbil n n h z
n s t n n r.

Usurbil, 2 k u r r r l r n 12
Luis M r r m t x, l k t



Lehiaketa

**Entzun! aldizkariak argitaratu dituen
bi DVD hauek eskuratu nahi al dituzu?**

Oso erraza duzu. Galdera honi erantzun
eta zozketa batean hartuko duzu parte.

Zein musika talde duzu gogokoen?

Erantzuna e-postaz igorri eta eta jasotako
erantzun guztien artean Entzun!

aldizkariak argitaratu dituen bi DVD
hauek zozketatuko ditugu. Animo eta zorte on!

Partehartzeko azken eguna: otsailak 11.



Bidali erantzuna e-mailez erredakzioa@noaua.com.

Postaz Bordaberri 3 Eguzkitzaldea -20170 USURBIL (Gipuzkoa).

EGIN TXOTX!! sagardotegi garaian



Txotxetik sagardoa jarraitu edio!

AIALDE BERRI

Urtarrilaren 15tik irekita!

Santutenea, Tel.: 943 365 051 | Mobila: 607 027 751



LARRE-GAIN
TOLABE SAGARDOTEGIA

Urtarriletik apirilera txotx garaia
(Astelehenera itxita)

Larre-Gain Baserria Ereñozu - Hernani
Tel.: 943 55 58 46 | Mugik.: 616 287 867



**ASTIAZARAN
SAGARDOTEGIA
IRUIN**

Betidanik hemen, denon etxetik gertu.

Urtarrilaren 9-an
irekiko dugu
tel.: 943 36 12 29



ELUTXETA
SAGARDOTEGIA • ERRETEGIA

Urte guztian irekita astelehena ezik.

Ozlaran Bailara • URNETA (Gipuzkoa) • ☎ 943 55 69 81



SAIZAR
Sagardotegia

Kale Zahar Arrosa, 38
20170 USURIL
GIPUZKOA

Tel.: 943 362 229
www.sidrassaizar.com



OTEGI
Sagardotegia

Urte guztian irekita Astelehena ezik

Sola onoa
Baserria
Zabaleta auzoa
Lasarte-Oria
Tel.: 943 365 020

